

ASTELEHENEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2019ko URTARRILAREN 21a. 18:30.

### ASTELEHENA (2019/01/21)

Zerua hodeitsu egongo da. Zaparrada txikiak botako ditu, bereziki kantauri isurialdean. Elur-kota 700-800 m inguruan egongo da. Ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da. Mendi inguruetan izotz txikia egingo du.

Temperaturak (°C)	
<i>Maximoa</i>	
Donostia	9
Bilbao	9
Gasteiz	6
Arrasate	9

### ASTEARTEA (2019/01/22)

Goizaldean zerua hodeitsu egongo da, erdi-mailako hodeiak eta goi-hodeiak nagusituz; goizean hodeiak ugaritu egingo dira, eta zerua oso hodeitsu edo estalita geratuko da. Goizaldean prezipitazio txikia egingo du, bereziki kostaldean; goizean goizetik aurrera prezipitazio txiki-ertaina eta iraunkorra egingo du, ugariagoa egunaren bigarren partean eta kantauri isurialdean. Trumoi-ekaitzak izan daitezke eta txingorra egin dezake, batez ere egunaren amaieran eta kantauri isurialdean. Elur-kota 800-900 m-ra egongo da; goizean puntualki beherago egon liteke, batez ere barnealdeko eta ekialdeko bailaretan. Hego-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da; eguerdian ipar-mendebaldera egingo du eta indartu egingo da, bolada gogorrekin, eta oso gogorrekin haizeguneetan. Temperatura minimoak nahikoa jaitsiko dira eta maximoetan, aldaketarik ez. Arabako zenbait tokitan eta mendi inguruetan izotz txikia egingo du.

Temperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	3	9
Bilbao	4	9
Gasteiz	0	5
Arrasate	1	8

### ASTEAZKENA (2019/01/23)

Zerua estalita egongo da. Prezipitazio ertaina eta iraunkorra egingo du, ugariagoa kantauri isurialdean. Goizaldean eta kantauri isurialdean trumoi-ekaitzak izan daitezke eta txingorra egin dezake. Elur-kota 1000 m-ra egongo da; egunaren bigarren partean 600-800 m-ra jaitsiko da. Goizaldean mendebal/ipar-mendebaldeko haize bizia ibiliko da, tarte gogorrekin, eta bolada oso gogorrekin; goizean ipar/ipar-mendebaldera egingo du eta ahuldu egingo da. Temperatura gutxi igoko da. Arabako zenbait tokitan eta mendi inguruetan izotz txikia egingo du.

### OSTEGUNA (2019/01/24)

Zerua oso hodeitsu edo estalita egongo da eta arratsaldean hodeiak gutxitu egingo dira. Prezipitazio txiki-ertaina egingo du, arratsaldean atertzeko joerarekin. Elur-kota 500-700 m inguruan egongo da. Ipar-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da. Temperatura gutxi jaitsiko da. Arabako zenbait tokitan eta mendi inguruetan izotz txikia egingo du.